

TALAIAN

## Kapitalismoa salbatzen

Hara munduko kapitalismo finantzarioa salbatzeko ikuskizun lotsagarria. Amerikako Estatu Batuek, ekonomian eskua sartzearen ari-ri nagusiak, merkatu librearen defendatzaileak, bankariak porrotean ez itotzeko 700.000 milioi dolar (479.000 milioi euro) jartzea erabaki dute. Estatuak zergadun amerikarrei ezarri die zigorra, hau da, bankariak porrotetik salbatu beharra. Bankari horiek, diru goseak jota, munduko ekonomia eta finantza krisi handiena eragin dute. Estatu liberalak, kapitalismo basatienaren kudeatzaileak, galarak "sozializatu" ditu eta irabaziak "pribatizatu". Kapitalismoa ez dute zulotik atera AEBetan soilik, baita Europan ere. Europako Banku Zentralak urte honetan 462.440 milioi euro sartu ditu Europako bankuetan. Europako gobernuak –tartearen espainiarra, frantziarra, EAEkoa eta Nafarroakoa– kapitalismo horren kudeatzaileak dira, horrelako eskusartze basatia onartzen dutelako.

Gobernuok esan dute hartutako irtenbidea ona izan dela, zeren horrela esku hartu izan ez balute ondorioak larriagoak izango zirela munduko finantza sisteman. Ez diezagutela adarrak jo. Hori gezurra da. Krisiaren erantzule benetakoa sistema kapitalista da eta basakeria hori ezkututzen saiatzen dira bizirik iraun dezan. Europatik, Frantziako presidente Sarkozyk proposatu du "oinarri etikoak dituen kapitalismoa berreraikitzea". Kapitalismo basatia "gizatiartu" nahi dute irabaziak pribatizatzen segitzeko. Hartzekoa da Europako Parlamentuko presidente Poettering-ek esan duena: "Ezin zaizkie bankuei 700.000 milioi eman eta gosez ahaztu". Hartzekoa da zeren beraiek, Europako Banku Zentrala buru dutela, amerikarren senda-gaia darabilte. Irtenbidea ez da kapitalismoa zulotik ateratzea baizik eta beste ekonomia sistema bat eraikitzea; gizartearen eta herrien zerbitzura egongo dena, berdintasuna eta garapen solidarioa bultzatuko dituen. Utopia dela? Hori gabe oihanean segiko dugu.

*Juan Mari Arregi*

## “Sasoian” aldizkaria eta webgunea

**KIROLEAN** euskara indartzeko beste aha-lerin bat da. Gipuzkoako Urola bailarako Aia, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia herrietako kirol informazioa jasoko dute hileroko paperezkoak eta sasoian.info webguneak. Aldizkaria doan da eta pdf-an egongo da webgunean. Urola Kostako Udal Elkartearena da egitasmoa.

## Euskarabideak webgunea dauka

**NAFARROAKO GOBERNUAK** iaz abian jarritako Euskarabideak webgunea estreinatu du. Albisteak, agenda, Nafarroako euskalkiei buruzko informazioa eta argitalpen zerrenda bilduko ditu, besteak beste.

BAHEA

Jose Mari Pastorrek Berrian Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiaren manifestuari erantzunez: “Euskal kultura eta demokrazia bateraezinak direla iradokitzen ari dira? Euskal kultura eta intolerantzia lotzen ari dira? Are larriagoa: euskal kultura eta terrorismoa lotzen ari dira, modu subliminalean bada ere? ETaren hilketek prestigio demokratikoa kentzen diete euskarari eta euskarazko kulturari? Eta garbiketa etnikoaren ondorioz Ameriketara hildako milioika lagun sarraskiak ez dio kendu espainierazko kulturari prestigio demokratikoa?”.

**Txapela buruan  
ta ibili munduan**

**Narrika, 18. Donostia**  
telf. 943428299 [www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

## Ondo Patxi Lopez, baina tiradizo faltan oraindik

**BIKAIN DA PATXI LOPEZ** euskaraz entzutea, eta gainera ez da lehen aldia... Lehen aldia da, ordea, berak eta bere alderdiak euskararen inguruan halako ekitaldi esanguratsua egiten dutena. Hori ere ona da euskararen prestigio eta garapenerako. Berdin da hori guztia hauteskunde giro betean gertatzen bada, horrek erakusten duelako

amu gisa baliagarria dela Eusko Jaurlaritzako lehendakartzat lortu nahi duenarentzat. Hizkuntza gisa gutxitua bada ere, minoritarioa, esparru sinbolikoan funtsezkoa dela hegemoniarako.

PSEk ordea, oraindik ere badu sinesgarritasun arazorik euskaldunen –euskal hiztunen– munduan. Multzo zabal eta anitz horretan, PSEri Donostiako ekitaldiak baino askoz sinesgarritasun handiagoa ematen dio Ramon Etxezarreta, Denis Itxaso edo Jose Luis Elorza Euskadi Irratiko egunerokotasunean euskaraz normaltasunez entzutea.

Bere ekarpenak azpimarratzeko, PSEek sarri jotzen du Euskararen Legeari eman zion sostengura edota Ardanzen koalizio gobernuetan hezkuntzan egindako politiketara. Eta horiek eta beste batzuk hor egonda ere, itxura eta pertzepzioen ikuspegitik bederen, alde egindakoak ez du oraindik aurka egindakoak gainditzen. PSOEko eta PSE-eko sektore zentralista askok egindakoek ez diote lagundu horretan, ez PSNk Nafarroan garatutako politika, ez Ermuko Foroko edo gisako taldeetako beren militante askoren jarrerak...

Baina irudi eta pertzepzioetan oinarritutako horiez gain, Euskara Askatasunez manifestuak iraingarriak eta biziki arriskutsuak diren baieztapen ugari ditu, titulutik berta-



IMANOL OTTEGI / ARGAZKI PIRESS

tik abiatuta, euskararen garapenean orain arte egindakoak askatasunez egin izan ez balira moduan, eta inposaketa euskaltzale eta euskal komunitate zabal horretatik baletor moduan.

Agiriak zeharka iradokitzen du mundu zaharkitua dela euskararena eta modernotasuna ekartzera datozela sozialistak, eta aniztasuna, demokrazia, ikuspegi integratzailea, politizatu gabekoa, oinarri identitario eta historizistatik gabea, ez baztertzaila... Eta larriagoa dena, euskarazko kultura egiten dutenei prestigio demokratikoa ukatzen die. Tonu hori urruti dago iradokitzen den mezu ireki eta integratzailetik, eta nekez irabaz dezake jarraitzaile ugari euskarazko kultura eta gizarte esparruetan. Baina gizarte esparru aurrerakoiaren eremu zabalean arrantza egiteko balio diezaiokie eta orain hori da garrantzitsuena. Balio duen moduan euskal kulturaren munduari diru-laguntzak ez direla jaitziko adieraztea.

**HIZKUNTZA BORROKA** ez da fikzioa, hemen da. Hizkuntza pertsonaren komunikazio eta adierazpide nagusia da, den guztia nagusiki tresna horrekin adierazten du eta horregatik da hain garrantzitsua eremu sinbolikoan ere.

Hori jakinda eta onartuta, ezin da pentsatu euskara bultzatzeko osagai

bakar batzuk egon behar dutenik, eta zabaldu behar dena da bakoitzak topatu behar dituela bere euskaltzaletasuna bultzatzeko arrazoiak, izan hauek identitarioak, kulturalak edo, besterik gabe, historian gehienetan gertatzen den legez, pragmatikoak. Denak dira onargarriak eta ez dago bata bestearen gainean dagoen motibatorik. Bitxia da Lopezen agirian nola egiten zaion erreferentzia ETA eta euskarari; ETAk bere helburuetan Euskal Herri euskalduna nahi izatea ez luke inor akonplejatu behar, are gutxiago euskaratik urrundu.

Agiri honek inposaketaren lekura, akordioa, askatasuna eta armonia ekarriko duela iradokitzen du. Baina ez da agiri honetan bakarrik, Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta, Euskararen Aholku Batzordeak eztabaidarako prestatu duen agirian ere giro zerutiar eta armoniatsu horri egiten zaio behin eta berriz erreferentzia.

Historian zehar hizkuntza batzuk desagertzen badira, hori da beste batzuek hartzen dutelako haien lekua, izan konkistaz edo sedukzioz. Hau da, hizkuntz borroka hor dago, harreman gatazkatsua da, haien hiztunen arteko harremanetan ere islatzen dena. Jakina hizkuntza garapena ahalik eta modu kontsentsuatuenean egin behar dela, bai hiztunen arteko arazo gutxiagorekin egingo delako eta baita eraginkorrerago izango delako ere. Baina nola irabazi behar ditu euskarak esparru berriak lehia hori gabe? Errealitate printzipioan oinarrituta, gatazka izaerari uko egin gabe eta herritarren eskubideak, borondateak eta kontsentsu dosiak ahalik eta txukun nahasiz.